

Araba / Álava. Los nombres de nuestros pueblos

Liburu honek, hitzaurrean diodanez, Trebiñun izandako ikasketa historikoen biltzarrean izan zuen sorrera. Kongresua 2011n egin zen eta liburua atara berria da. Hortaz, eta biltzarreko lana egiteko gutxienez urte erdia behar izan nuela aintzat hartzen bada, aise da kontuak egitea: bost urte luze eman ditut gaur aurkezten dugun lan hau burutzeko.

Bost urte hauetan Trebiñuko lana atara zen lehenbizi, 2012an, eta urte horretan berean eta ondokoetan aldeaz edo moldez Arabako leku izenak ukitzen dituzten beste lau artikuluk ikusi dute argia, Iruñeko *Fontes Linguae Vasconum* eta Baionako *Lapurdum* aldizkarietan. Ez ezazue pentsa, nolana ere, bost artikuluko horietan liburuan azaltzen diren izen guztiak aztertzen ditudala, alegia, artikuluekin liburua moldatua-edo nuela. Ezta hurrik eman ere.

Izan ere, liburuaren planteamendua artikuluenaz arras bestelakoa baita, ez baitu zerikusirik handirik haiekin. Hura osatzeko fitxa moduko bat diseinatu nuen hasmentan: bertan izenburuko aldaeraz landara, herriaren izen arautua, dokumentazioko aldaerak, euskal mikrotoponimiako lekukotasunak, ebakera eta etimologia biltzen dira gehienetan. Zenbait aldiz, gainera, herritarren izena, euskal testuetan agertzen diren toponimoen aldaerak, alonimoa (herriaren beste izena) eta oharren bat azaltzen dira.

Zeregin hauetan aritu ez denak ez dakike zenbat ordu sartu behar diren, honelako lanetan ohitua izanik ere, aipatu fitxare arlo guztiak betetzeko. Izen arautua zein den ez dago beti zeharo garbi, batzuetan Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Ogasun Ministerioak

aldaera bera hobesten ez dutelako: bi forma desberdin ofizial izatea ez da gertakari bakana. Nolanahiko gisan, erran beharrik ez legoke, aldaera arautua behar dugu, izena administrazioan eta beste arloetan egokiro, nahasmendurik gabe, ibili ahal izateko.

Aldaera dokumentalak erdiesteko argitaraturik dauden agiri bildumak arakatu eta miratu ditut, jakina. Beste gisan, horien guztien bila jatorrizko agirietara joan behar izan banu, urte mordoxka beharko nukeen bukatzeko. Agiri testigantza hauen munta bistakoa da: herri izenaren etorkia eta nondik norakoa argitzeko aldaera zaharrak izatea ezinbestekoa da, hor azaltzen baitira, ardura, toponimoaren iturburuaren berri ematen diguten aztarnak. Gainera, euskararen historian sakontzeko (eta hau izan da lanaren helburu ez aitortuetako bat), adibidez hasperenaren bilakaera ikusteko, baitezpadakoak dira agirietako testigantza horiek.

Eremu honetan Eusko Ikaskuntzaren *Fuentes Documentales Medievales del País Vasco* liburu bilduma bikaina nabarmendu nahi nuke lehenik, Donemiliago «Reja» delakoa bigarrenik, eta dokumentu honetaz arta agertu duten guztien lana azkenik, García Andrevarena, kasurako.

Euskal toponimoetako testigutzak ere nahitaezkoak dira, ezin utziak alegia, herri askoren euskal formak *agirre, alde, baso, bide, muga* bezalako izenen lagun azaltzen baitzaizkigu, inguruetako beste herrietako mikrotoponimoetan. Horri esker dakigu, konparaziorako, egungo *Ciriano* gure hizkuntzan *Ziriao* zela denboraz, eta *Zirao* gero, *Muniain* > *Munain* aldakuntzan dugun moduko disimilazio baten ondorioz. Horri esker dakigu, orobat, *Audicana* erdarazkoa *Audika* zela euskaraz (Perez Lazarragak, gainera, *audikar* gentilizioa darabil),

Crispiana, Miñano eta *Trespuentes* erdarazkoak *Krispiña* (eta *Krispixa*), *Miñao* eta *Tresponde* zirela gure hizkuntzan. Kasu bihurriagoak ere badira: *Albaina* eta *Montevite* euskaraz *Albaita* eta *Mandaita* izan dira.

Hemen Elena Martínez de Madina Euskaltzaindiaren *Gasteizko toponimia* egitasmoaren barnean egiten ari den lan xehe eta zehatza goretsi nahi nuke, hor azaltzen baitira, erran bezala, anitz herri izenen euskarazko aldaerak. Roberto González de Viñaspreren lana ere aipatu nahi nuke, bai eta ere aurretik, era batera edo bestera, Arabako toponimiaz arduratu direnena, Lopez de Gereñu, Caro Baroja, Koldo Mitxelena, Henrike Knörr eta beste askorena. Aurre edo prestalan hori gabe ezinezkoa zatekeen egun aurkezten dugun liburua ateratzea.

Ebakerari dagokion atala, bestalde, aski eztabaidagarria da, eta eztabaidatua ere izanen da, hain segur, hemendik aitzina. Hor herri izen bakoitzaren erdarazko ahoskera biltzen dut, eta herria euskalduna denean euskarazkoa (ere bai). Arazoa da euskara hainbat tokitatik lekutzearekin euskal aldaerak ebakitzeko moduak ere ahantzi direla, eta inork ez dakiela ongi nola ahoskatzen ziren. Hemen didaktika lan pixka bat egin nahi izan dut, garbi baitago euskal forma horiek berreskuratu nahi baditugu nolabait ahoskatu beharko ditugula eta, jakina, dokumentazioan ez da zehazten toponimo bakoitza nola erraten zen.

Nik holakoetan egun nagusitzen ari den erdialdeko ebakera eman dut. Adibidez, erdaraz *Étura* erraten da, eta euskaraz *Éturà* proposatzen dut nik, aipatu *Étura* aldaera horrek euskararen aztarna kopetan iltzatua badarama ere. Honek bultzatu nau, era berean, *Arzubiága Artzúbiagà* bihurtzera, nahiz afrikatze hori ez egon

lekukotua eta ez izan, menturaz, *Arzubiaga* herriko eta inguruetako hizkeran ezartzen zen arau fonologikoa. Gai delikatu da hau, eta nire proposamena horixe besterik ez da, *proposamena*. Ausartegia izan naiz? Badaiteke. Geroak erranen.

Etimologia, bestalde, azaldu beharreko arloa zela iruditu zitzaidan, hiztunok eta hizkuntzalariok maiz herri izenen gibelean dauden etorkizko adieren xerka ibiltzen baikara. Toponimoen jatorrizko esanahia argitzeak eskualdearen historia, populatzea eta beste gertakari batzuk hobeki ulertzen laguntzen digu. Honela dio Jean-Claude Bouvier frantses onomastikariak 2002ko *Noms de lieux du Dauphiné* liburuaren hitzaurrean: «... car l'étude des noms propres de lieux, la toponymie, est l'une des clefs importantes qui ouvrent à la connaissance de l'histoire d'une région et surtout à la compréhension des comportements culturels et sociaux de ses habitants à travers l'espace et le temps».

Gainera, herrialde bateko toponimia (Arabakoa kasurako) beste alderdi batzuetakoekin erka daiteke, antz-aldeak ikusteko. Euskal Herriaren barnean atzizki banaketa ikus daiteke, zein bukaera edo atzizki azaltzen diren Araban, zein Nafarroan, zein Iparraldean... Adibidez, *-ain*-dun toponimoak arras hedaturik daude Nafarroan eta Iparraldeko alderdiren batean (Zuberoan), eta Gipuzkoako eta Arabako ekialdean ere azaltzen dira. Gero, jakina, datuen interpretazioa heldu da, hots, eta kasu honetan, banaketa horren arrazoia bilatzea. Honek, argi dago, ez dio batere kalterik egiten euskalkien sorreraren ikerketari, apika asko-asko ere laguntzen ez dion arren.

Leku izenen esanahia, berez, ez da, egun, esanahia, toponimoen xedea toki bat identifikatzea besterik ez baita. Baina ezaguna da

jatorriz toponimoetako asko izen arruntak zirela, eta antroponimoen kasuan ere etorkizko adiera eman daitekeela, nahiz ez beti. Erraterako, *Andollu* nire ustez **Antoninu*-tik atera da, hots, *Antonius* izeneko baten lurra zen, *Arbulu* 'mintegia' edo zen, nire irudiz latineko hitz batetik heldu baita, **arbústellu* txikigarritik, *Arbígano* eta *Aprikano* etimo beraren bilakaera desberdinen emaitza besterik ez dira (*Apricus* da oinarrian den pertsona izena), e.a.

Herritarren izena gutxitan baizik ez dut sartu, eta batez ere testuetako lekukotasunak eman ditut, alor honetan ez baitut ikerketarik egin. Hau gero egin beharreko lanetako bat da. Alonimoa (*Beotegi / Perea, Opellora / Costera, Santa Eulalia / Ondokolanda*) ere gutxitan azaltzen da, herriek, gehienxkoenetan, izen bakarra izaten dutelako. Fitxako aipatu «oharra» ere bakanka baizik ez dut sartu.

Arabako herri izen guztiak ukitu ditut; 520 sarrera baino gehiago ditu liburuak, herrienak gehienak, eta bestelako entitateenak zenbait aldiz (*Araba, Ergoiena, Gasteiz, Haran, Zuia* eta abar). Horietaz landara, hainbat herri husturen izenak ere aipatzen ditut, beste toponimoak aztertzean ongi heldu zaizkidanean (*Abitoa* edo *Abitona, Aiala, Arbelgoihen, Azua, Baternia* edo *Paternina, Berezeka, Gardelain, Girku, Lupierro, Ribota, Santsoeta, Udala, Urrialdu, Vercijón* eta beste). Horretaz gainera, jakina, hango eta hemengo makina bat toponimo aipatzen eta are aztertzen ditut, hizpideak ekartzen dituenean, euskal toponimo deskribatzaileak franko errepikatzen baitira (*Lete, Mendibil* eta *Otazu*, adibidez, edo *Gordoa, Kordoba* -> *Cordovilla* Nafarroan).

Toponimoen iturburua aintzat harturik, erdia baino gehiago deskribatzaileak (termino hau adiera zabalean ulertu behar da) direla

idatzi dut, ia berrehun antroponimoak, eta mordoxka bat bestelakoa. Hemen, bistan da, aldaketak izan daitezke, izen batzuetako bestelako iturburua hobesten bada, baina nik uste banaketa ez dela asko aldatuko.

Lanaren bukaeran ondorio linguistikoak atera ditut, hots, euskararen eta gaztelaniaren historiari doazkion kontuak aipatzen ditut. Horietako garrantzizkoena hasperenaren bilakaera islatzen duen taula dateke, eta berebat ateratzen diren ondorioak edo egiten diren oharrak.

Bukatzeko, erran nahi dut liburu hau ez dudala behin betiko lantzat hartzen. Ezta gutxiagorik ere! Zirriborroa da niretako, zirriborro potzoloa hori bai, gai hauek lantzen dituztenek aldatu, zuzendu, hobetu, osatu beharko dutenak. Ni nerau ere ez naiz deus egin gabe egonen, osagarriak uzten badit. Mikrotoponimia lanetan, euskarazko testuetan eta artxibategietan ezbairik gabe aterako diren datu berriek azalpen bat baino gehiago aldaraziko dizkigutela zalantzarik ez dut egiten nik. Eta ongi etorriak izanen dira datu berri horiek, aitzina egiteko bidea hori delako.

Erran dut,

Patxi Salaberri

Gasteizen, 2016ko urtarrilaren 21ean